



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

UMOREA HAUR HEZKUNTZAN

GRADU BUKAERAKO LANA

AUTORÍA: Sanz Cruz, Idoia.

DIRECCIÓN: MartínezSalazar, Iñaki.



2014

LABURPENA

Barre egiteko gaitasuna, bizitza umorez hartzeko jarrera eta horretaz lankideekin, familiarekin eta lagunekin gozatzeko ahalmena, gaur egun ia lortu ezin den irrika da. Hala ere, badaude gure artean hori bost minututan lortzeko gai direnak: haurrak. Hauek dira gehienetan, helduon barre egiteko gura pizten dutenak. Irakasleen egun grisak ere haien burutazioekin, txisteekin eta algarekin koloreztatzen dituzte.

Horren guztiaren ondorioz, umorea, barrea eta Haur Hezkuntzako irakasleak eta haurrak bateratuak izan dira GBL honetan, hauen arteko "nahasketak", gaur egungo eskolak bizipozez, alaitasunez, maitasunez, konfiantzez, lasaitasunez eta ikaskuntza esanguratsuez betetzen dituztelarik.

Deritzogun "nahasketa" hori, txosten honetan behatua izango da, umeein egunero dauden irakasleez eta hurrez ikasteko, etorkizunean gure kargu izango ditugun haurrak hobeto ulertzeko eta gure lana "lana" ez izateko, gozamina baizik.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	1
2. JUSTIFIKAZIOA, GAIAREN GARRANTZIA ETA ARLOAREN EGOERA	2
2.1 Sarrera	2
2.2 Gaia hautatzeko arrazoiak.....	2
2.3 Zalantzak eta prozesua.....	3
2.4 Marko teorikoa.....	5
2.4.1 Umorearen jatorria	5
2.4.2 Umorearen definizioa.....	6
2.4.3 Umore motak	7
2.4.4 Umorearen teoriak.....	8
2.4.5 Umore generoak	10
2.4.6 Umorearen gaineko gogoetak eta ikerketa enpirikoak.....	11
2.4.7. Barrearen jatorria.....	14
2.4.8 Barrearen definizioa	15
2.4.9 Barrearen onurak arlo ezberdinetan.....	16
3. HELBURUAK.....	18
4. METODOA	19
4.1 Metodologia planteamendua.....	19
4.2 Ikerketaren kokapena	19
4.2.1 Zornotzako eskola: Larrea ikastetxea.....	20
4.2.2 Trapagaraneko eskolak: Franciscanas de Montpellier ikastetxea, Petete haur eskola, Itxaropena ikastola eta La Escontrila ikastetxea.	20
4.3 Materialen behaketa.....	21
4.3.1 Ikerketa irakasleekin: galdetegiak.....	21
4.3.2 Ikerketa hurrekin: Behaketa eta ¡¡¡SOCORRO!!! ipuina	21
5. EMAITZAK.....	22
5.1 Galdetegien emaitzak.....	22
5.2 "¡¡¡SOCORRO!!!"	26
5.3 Eskolek proposaturiko jarduerak	26
5.3.1 Egunkari paperarekin jolasten	26
5.3.2 Zetazko zizareak behatzen	26
5.3.3 Birziklapenaren ipuina.....	27
5.3.4 Errutinak.....	27

5.3.5 Errutinak eta urtebetetzea	27
6. ONDORIOAK	28
6.1 Galdetegiaren ondorioak	28
6.2 Eskoletan egindako behaketaren ondorioak.....	30
6.2.1 "¡¡¡SOCORRO!!!" ondorioak	30
6.2.2 Egunkari paperarekin jolasten jardueraren ondorioak.....	30
6.2.3 Zetazko zizareak jardueraren ondorioak.....	30
6.2.4 Birziklapenaren ipuina.....	31
6.2.5 Errutinak.....	31
6.2.6 Errutinak eta urtebetetzea	31
6.3 Azken ondorioak.....	31
7. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	32
8. BIBLIOGRAFIA	34
I. ERANSKINAK	36

1. SARRERA

GBL honen gaia, "Umorea Haur Hezkuntzan da" beraz, txosten honetan, Haur Hezkuntzan umoreaz eta barreaz egiten den erabilera aztertuko da. Hori guztia egiteko, lehenik eta behin adierazia izango da zerk bultzatu zuen txosten honen idazlea gai hau hautatzera. Gero, gaiaren inguruko marko teorikoa adierazia izango da. Horretan umoreaz eta barreaz idatziko da.

Jarraian, gai honek txostenaren idazleari iradoki dion ikerketa adieraziko da, horren helburuak irakurleei plazaratuz. Horren ostean, ikerketa aurrera eramateko erabili dituen metodoak adieraziak izango dira.

Ikerketaren emaitzak adieraztea izango da hurrengo pausua. Horretarako, erabilia izan den metodologia lortu diren emaitzekin batera behatuko direlarik. Horren jarraian, lorturiko emaitzez, ondorioak adieraziko dira. Hori lanaren atal garrantzitsuena izango da, izan ere horretan helburuen atalean planteaturiko hipotesiak egiaztatuko dira.

Ondoren, egindako proiektua hobetzeko kontuan izan beharreko proposamenak adieraziak izango dira. Gero, txosten honen eraketan erabiliak izan diren erreferentzia bibliografikoak aurkeztuko dira.

Amaitzeko, eranskinen atala egongo da; horretan, interesa duenak aukera izango du txosten honen eraketan lagundu duten bestelako dokumentuak eta informazioa irakurtzeko.

Besterik gabe, txostena irakurtzera gonbidatua zaude.

2. JUSTIFIKAZIOA, GAIAREN GARRANTZIA ETA ARLOAREN EGOERA

2.1 Sarrera

Umorea, gizaki guztiekin datorren gaitasuna edota ikaskuntza soziala da. Pertsona guztiok, neurri batean, umorezko egoerak bizi ditugu gure bizitzan zehar. Batzuentzat, umoreak presentzia txikia du haien existentzian, beste batzuenan, ordea izugarri handia da. Neu, adierazitako bigarren taldekoa naiz. Orain, gai hau hautatu izanahobeto ulertzearen, nire esperientzia pertsonala adieraziko dut eta, horren jarraian, gai hau hautatzera bultzatu ninduten beste arrazoi batzuk.

2.2 Gaia hautatzeko arrazoiak

Txikia nintzenean, edonorekin hitz egiten nuen. Hala ere, heltzen nindoan bitartean nire egoera pertsonala aldatuz joan zen eta, horren ondorioz, barnerakoi samar bihurtu nintzen. Momentu horretan ez nekien oso ondo zergatik gertatzen ari zitzaidan hori eta, are gutxiago nola gainditu. Esan behar dut bizitzak dakartzan erronka batzuk gainditzeko zailtasunak izan nituela; umorea ez neukan aliatu eta, ondorioz, esperientzia zaila izan zen niretzat. Hala ere, urte batzuk pasa eta gero, bizitza beste era batean ikusten hasi nintzen: alaitasunez eta umore onez. Umorea nire izaerari txertatu eta estrategia gisa erabiltzen ikasi nuen. Esan behar dut gaztaroan, umorea estrategia gisa erabiltzea hainbat egoera gainditzeko lagungarria izan dudala; espero ez nuen azterketa baten emaitza onartzeko, osasun arazo bat izandako familia-kide bati laguntzeko...

Ikusten denez, umorea oso garrantzitsua da nire bizitzan; niri beste era batean bizitzeko aukera ekarri baitit. Ni bezala, pertsona asko daude umorea haien eguneroko bizitzan txertatu dutenak eta, horri esker, baikortasunez bizi direnak. Hori izan zen gai hau hautatzearen lehenengo arrazoia, Gradu Bukaerako Lana aukera ematen zidan nire bizitza pertsonalean hain garrantzitsua den hori Haur Hezkuntzako arloan behatzeko.

Arlo pertsonala eta afektiboa albo batera utzita, esan behar da beste bi arrazoi nagusik bultzatu nindutela gai hau aukeratzera: esploratu gabeko saila izatea eta gaiaz ezer gutxi idatzita egoteak.

Umorea, Lehen Hezkuntzatik gorako mailetan behatua izan den gaia da. Marko teorikoan adierazita dagoen moduan, hainbat jakitunek umorea ikaskuntza prozesuan eta auto-kontzeptuaren eraketan duen eraginaz gogoetak egin dituzte. Beste batzuek, ordea, ikerketa enpirikoak gauzatu dituzte umoreak ikasleengan eta irakasleengan duen eragina aztergai. Hala eta guztiz ere, inork ez du umorea Haur Hezkuntzan behatu, ez irakasleengan ezta ikasleengan ere.

Hori horrela izatea xelebrea da. Jakina denez, gizakion auto-kontzeptuaren eraketa prozesuaren urterik esanguratsuenak Haur Hezkuntzakoak dira, zero-bi urte tartea bereziki. Dударik ez dago auto-kontzeptuaren eraketa hobea izango dela haurraren ingurua soziala, atsegina eta umore onekoa izaten bada. Hori guztia egungo gizartean onartua dago, baina horren inguruko ikerketa espezifikorik ez dago.

Jarraitzeko, esan behar da sail honen gainean ezer gutxi idatzi denez, gaiaren gaineko oso informazio gutxi dagoela. Horregatik, horren gaineko behaketa egiteko grina piztu zitzaidan, gaiaren gainean nire esperientzia gehitzea eta ikastea helburu nituelarik.

Gradu Bukaerako Lan honekin dudan intentzioa da, beraz, ikertu gabeko sail honetaz ze edo zer ikastea, Haur Hezkuntzaren unibertsora nire ekarpen txikia egitea eta, datozen urteetan irakasle karreran formatuko direnek, Haur Hezkuntzako alde hori eta gaur egungo irakasleek lan egiteko erabiltzen dituzten estrategiak ezagutzea.

2.3 Zalantzak eta prozesua

Lan honen eraketan hasi nintzenean hainbat beldur sortu zitzaizkidan. Gai interesgarria eta mamitsua izan arren, zabala eta konplexua zen. Ez nekien nondik hasi; zein izango zen nire ikerketa? Non bilatuko nuen informazioa? Umorearen teoriak oinarri erabiliko nituen ala informazioa biltzeko baliabide gisa besterik ez?

Beste lan batzuk egiten nituen bitartean, larritu gabe, lehenengo zirriborro bat egin nuen hasierako ideiak eta lanaren nondik norako batzuk erabakitzeko. Esan behar dut hasiera batean, ikerketa faraoniko bat jomuga jarri niola neure buruari: umorea nola landu Asperger, Autismoa eta Down sindromea duten haurrekin. Momentu horretan ez nuen pentsatu horrek ekar diezadakeen karga handiegia izango zela; beste eginbehar asko nituen eta, horren ondorioz, ia ez nuen denborarik izango Gradu Bukaerako Lana egiteko.

Beste eginbeharrak eta, horrekin batera, ikasgai guztiak gainditu ostean, proiektu honen eraketan eskusiban jardun nuen. Aspaldi izandako Gradu Bukaerako Lanarekin lehenengo kontaktu hori nahiko urrun nuen eta horrekin, lehenengo momentuan lanaren gainean nuen perspektiba. Hasieran egin nuen gaiaren justifikazioa, planteaturiko helburuak eta metodologia guztiz aldatu nituen, benetan jardun nahi nuen horrekin eta nuen denborarekinez baitziren errealistak.

Lanaren perspektiba aldatu nuenean, dena argiago ikusten hasi nintzen, hala ere, oraindiklanik gogorrena geratzen zitzaidan: hori guztia txosten batean islatzea.

Txosten honen eraketan jardun nuenean, unibertsitatean irakatsi ez diguten hori ikasteko aukera izan dut. Irakasle eskolan aditu konstruktibista askoren teoriak irakasten dizkigute; Brunner, Vigotsky eta Montessori, gure ikaskuntza prozesuaren oinarri baititugu. Hala ere, horretaz aparte, ezer gutxi dakigu eskolak emateari buruz eta, are gutxiago umoreaz, hezkuntzan duen garrantziaz, bere baliagarritasun pedagogikoaz eta bere aplikazioaz. Horrengatik guztiagatik, gaiaren inguruko informazioa eta arloan adituak edota espezialistak diren horien ikerketak eta tesiak irakurri eta aztertu ditut; Gradu Bukaerako Lan honetarako informazio baliogarria zelarik.

Jarraitzeko, esan behar da nahiz eta jakin umorea gizaki guztien gaitasuna edo ikaskuntza dela, informazio gehiago beharrezkoa dela umorea bere osotasunean ulertzeko. Aipatzekoa da umorea kontzeptu hori ulertzeko, lehenik eta behin horren jatorria ezagutzea ezinbestekoa dela. Hori argi izan ostean, umorea definitzen has gaitzke. Hainbat autorek sortutako umorearen

definizioak kontuan hartuz, kontzeptu abstraktu honi zentzu zehatz eta fidagarri bat eman diezaioke.

2.4 Marko teorikoa

Umorea eta barrea izango dira atal honen aztergaiak. Lehenik, umorearen jatorria, definizioa, motak, teoriak, generoak eta horretaz egin diren ikasketa empirikoak aztertuko dira. Bigarren aztergaia barrea izango da. Hainbat filosofok, adituk eta zientzialarik mendeetan zehar barrearen inguruan idatzi dutena plazaratua izango da. Horren ostean, barrearen onurak adieraziko dira, lan honen eraketarako informazio baliogarria izango delarik. Informazio hori guztia, hurrengo paragrafoetan aurkeztua izango da, umorearen kontzeptua ulertzeko eta GBL honetarako egin izan den ikerketa babesteko.

2.4.1 Umorearen jatorria

Umoreaz hitz egiteko Grezia klasikora jo behar dugu. Garai hartan, umoreaz idazten hasi zen. Lehenetarikoak aurre-sokratikoak izan ziren. Gaur egun ez dira hauen idazki asko geratzen, baina, zorionez, batzuk oraindik liburutegi garrantzitsuetan daude, nahi duenak haietara jotzeko behar izanez gero. Hori egin zuen Javier Martín Camachok (2003) bere idazki batzuk eratzeko orduan. Honek, Heraklitok (535-484) gaiaren inguruan esan zuena jaso izan zuen.

“Non convenit ridiculum esse it autri ridiculus ipse videaris”

Latinez idatzita dagoen zita honek hauxe esan nahi du: “Irrigarri geratzea ez da komenigarria zu zeu irrigarria zaren arte”.

Umore hitzaren jatorria antzinako Greziako zibilizazioan dago. Honetan *lau umoreen teoria* garatu zen. Honen arabera, edozein gizabanakoren izaera lau umorez osatuta dago, hau da, giza gorputzaren oinarrizko lau substantziez osatuta dago, "umoreak"-bilis beltza, bilisa, flema eta odola- deitzen direlarik. Hauen orekak gizabanakoaren osasuna adierazten du; gaixotasun eta minusbaliotasunak umore horien desorekaren menpe daudelarik. Garai hartatik -eta XIX. mendera arte- europarrek lau umoreak gizabanakoaren dieta eta

aktibitatearen ondorioz handitzen edo txikitzen zirela pentsatzen zuten. Horren ondorioz, gizabanakoen osasun maila umoreen arteko oreka ona edo txarrarekin lotzen zen.

2.4.2 Umorearen definizioa

Umorearen kontzepzioa antzinako Grezietatik aldatu egin da, orain XX. eta XXI. mendeetan umorearen hainbat definizio aurkeztuko dira, egungo gizarteak umorez ulertzen duena plazaratu nahian.

Maria Moliner-en " "Diccionario de uso del español" umoreaz esaten da umorea izaeraren jarrera subjektiboa dela.

"Estado de animo de una persona, habitual o circunstancial, que le predispone a estar contenta y mostrarse amable, o por el contrario, a estar insatisfecha y mostrarse poco amable".

Umorea gatazkei irmotasunez aurre egiteko eskura dugun estrategia ere bada. Ideia honen defendatzailea Rollo May psikologo estatubatuarra zen. Izan ere, honek umorea beharrezkoa zela norbanakoak bere gatazkei argia emateko eta, horrekin batera, horietatik distantzia hartzeko defendatzen zuen.

"Elhumores una manera sana de sentir una distanciaentreelyo y el problema. "

Rollo May

Dony Tamblyn (2007) autore eta umorista estatubatuarra umorea baikortasuna eta irekitze ariketa dela esaten du.

"Elhumor (...) es una especie de actituden la quedices si a la vida"

Doni Tamblyn

Tamblynek, umorea sormenarekin harremanetan jartzen du. Bere aburuz umorea, sormena eta jolasa ekintza edota jarrera berdinak dira. Hiru elementu hauekin gertaeren arteko konexio berriak sortzea lortu behar da. Konexio horiek itxarotzen moduan ibiltzen direnean, sormena deitzen zaio, baina itxaroten

zen emaitza lortzen ez bada, lortzen den ondorioabarregarria deritzogu. Autore honek emandako azalpena hobeto ulertzearren, hurrengo adibidea ematen du:

Scarlet O'Harak "Lo que el viento se llevó" filmean bi gortina erabili zituen luxuzko soineko bat sortzeko. Urte batzuk geroago, Carol Burnett umorista estatubatuarrek horren inguruko "sketch" bat egin zuen. Horretan, soinekora bi gortinekin eta gortinetako burdinekin sortu zuen.

Pelikulan izandako gertaerari sormena deitzen zaio; pelikularen protagonistak eskura zituen baliabidearekin konexio berriak sortu zituelarik. Urte batzuk geroago egindako parodiari umorea deitzen zaio, umoristak planteaturiko konexio horiek emaitza txarra izan zutelako.

Laburbilduz, Tamblynek hurrengo baieztapena egiten du umorearen esanguraz:

"La creatividad que no alcanza el objetivo deseado es el humor".

Doni Tamblyn

Umorearen definizioekin amaitzeko, Silvia Hernandez Muñoz (2012) Zaragozako unibertsitatearen irakaslearen aburuz, umorea, zentzu zabal batean, barrea eragiten duen oro da.

2.4.3 Umore motak

Freud psikologoak umore motak deskribatu zituen. Honen ekarpena hain ona izanenez, hurrengo belaunaldietako autore askok haien idazkietan berak idatzitakoa aipatu zuten. Hempelmann jakitun alemaniarrek, 1998an argitaratu ez zuen tesian, Freudek -psikoanaliaren aitak- egindako ekarpena adierazten du.

Freud-en aburuz, umore mota bi daude: abstraktua eta alderdikaria. Umore abstraktua inozentea da, pentsamenduaren jolasa barruko eta kanpoko kritikaz babesteko erabiltzen da. Umore alderdikariaren funtzio nagusia, aldiz, arau sozialak edota haien barneratzearen ondorioz zigortutako desio horiek guztiak baimentzea.

2.4.4 Umorearen teoriak

Maria Rosa Pinto Lobok (1992) Maurice Charneyk "Comedy high and low: an introduction to the experiences of comedy" egin zuen umorearen sailkapenean (1. eranskina) oinarritu zen bere tesia idatzi zuenean. Pinto Loboren txostenean, gaur egun umorearen funtzionamendua azaltzen duten umorearen teoriak adieraziak daude; horiek txosten honetan azalduak izango dira, egingo den ikerketarako baliogarriak izango direlarik.

2.4.4.1 Inkongruentzia

Autore eta jakitun askok inkongruentziaren definizioa eman dute. Horien guztien artean Denise Pirowicz (2010) dago. Honek berezko definizioa sortu eta bestelako autoreek inkongruentziaz idatzi dutena bere idazkian jaso du. Atal honetan Pirowicz eta beste autore batzuk aipatuak izango dira, kontzeptu honen gaineko ikuspuntu ezberdinak adierazteko eta lan honen irakurleei ulermena errazagoa egiteko.

Schopenhauer (1788-1860) filosofo alemaniarrek honako hau esan zuen inkongruentziaz:

"La causa de lo risible esta siempre en la subsunción o inclusión paradójica, y por lo tanto inesperada, de una cosa en un concepto que no le corresponde y la risa indica que de repente se advierte la incongruencia entre dicho concepto y la cosa pensada, es decir, entre la abstracción y la intuición. Cuanto mayor sea esa incompatibilidad y más inesperada en la concepción que ríe, tanto más intensa será a risa"

Pirowicz jakitunak hurrengokoa esaten du inkongruentziaz:

"Grazia pentsamendu bat eratzen denean baina honekin bat etortzen ez den datu bat agertzen denean sortzen da. Hau da, umorea gure itxaropenen eta egoera edo jarreraren arteko ezberdintasunez sortzen da. Inkongruentzia izaera linguistikoa, ikusizkoa edo grafikoa izan daiteke, besteak beste." -Itzulpen propioa-

Piddingtonek (1962) bere aldetik, egoera asko inkongruenteak izan al direla barregarriak izan ez arren dio inkongruentziaz. Jakitun honen ustez zer edo zer irrigarria bihurtzen da normaltzat hartzen dugun gertaeren kurtsuan edonolako etenaldia egonez gero eta, horretan, kontrastea agertuz gero. Honen aburuz, egoera bat komikoa izateko bi edo gehiago ebaluazio sozial suertatu behar dira.

Amaitzeko, Rosas (2001) autorearen ustez, X eta Y enuntziatuak emanda, nahi izandako itxaropena hautsiz gero, txiste bat sortuko da. Hori guztia, bi enuntziatuen zalantzazko zentsuen artean ondorioz gertatuko delarik.

2.4.4.2 Nagusitasuneko teoria

Platon filosofoak teoria hau sortu zuen eta XVIII. mende arte jarraitua izan zen. Teoria honen oinarria hurrengo baieztapenean dago: pertsonak handiagoak edo hobeak sentitzen direnez irri egiten dute; umorezko esperientzia oro gizabanakoaren beste gizabanakoen gaineko nagusitasun sentimenduaren agerpenaren ondorioz sortzen da.

Antzinako filosofoek barre egitea ekintza ez moralizat eta harropuztat hartzen zuten. Bestearen grina txar aurkitzean eta horretaz barre egiten denean, biolentziazko erreakzioa eragingo zukeen.

Bergson (1939) adituaren aburuz, barrean umiltzeko intentzioa dago beti. Aipatutako idazkian hurrengo baieztapena egin zuen:

"En la risa observamos siempre una intención no declarada de humillar"

Piddingtonek Bergsonen teoria babesten du, bere aburuz barreak zigor soziala inplikatzeko baitu, gizarteari egokitzen ez zaizkion aspektuak zuzentzeko era bat delarik.

Amaitzeko, Hempelmanek (1998) aurreko autorearen pentsamendu lerroa jarraitzen du. Honen aburuz, besteen akatsak nagusitasun sentimendua sorrarazten du eta, horrek aldi berean barrea eragiten du.

2.4.4.3 Barealdiko teoria

Freud (1974) psikologoarentzat umorismoa, txistea eta komikotasuna plazer iturriak dira gizabanakoari energia psikikoa aurrezten laguntzendentelako.

Txisteak gatazka kognitibo edo afektibo bat eragiten du; horren soluzioa lasaigarria da, hau da, txisteak berak eragindako antsietatea gutxitzen da txistea ulertzen denean.

2.4.5 Umore generoak

Gaur egungo gizartean aurki ditzakegun umorearen generoak atal honetan adieraziak izango dira. Hurrengo lerroetan horiek guztiak adieraziak izango dira. Umore genero bakoitza, horren adibide grafiko bat izango du eranskinetan (2. Eranskina).

2.4.5.1 Umore zuria: umore mota honek ez dakar inolako konnotazio ezta denotazio negatiborik ere. Aurkezlearen eta aurkeztuaren kalitatean du oinarri.

2.4.5.2 Umore gordina: Umore honekin barregura eragingo da txiste edo egoera mingarri edota lotsagarriekin. Normalean hizkuntza baldarra eta traketsa erabiltzen da.

2.4.5.3 Umore eskatologikoa: Satiraren azpigenero honek ekintza fisiologikoekin zerikusia duen oro ukitzen du. Gai nagusiak kaka egitea, puzkerrak botatzea, txiza egitea eta oka egitea dira.

2.4.5.4 Umore beltza: Satiraren bitartez normalean egoera sozial serioak diren horiek zalantzan jartzen ditu. Umore mota honen bidez sexualitatea, hilketak, suizidioa, pobrezia eta abarreko gaiak jorratzen dira.

2.4.5.5 Umore lehorra: Umore mota hau "deadpan"izenarekin ezagutzen da ingelesez. Umore mota honen adierazgarriena da inolako emoziorik adierazi gabe aurkezten dela. Ez da gorputz adierazpena erabiltzen.

2.4.5.6 Umore berdea: Umore mota honek oinarri du gustu txarreko elementuetan-hizkuntza zakarra, sexua, eskatologia eta gaixotasun nazkagarriak, besteak beste-.

2.4.6 Umorearen gaineko gogoetak eta ikerketa enpirikoak

Gaur egungo hezkuntza sisteman matematikentzako, hizkuntzentzako eta abarreko ikasgaietarako tokia dago, hala ere umorearekin harreman zuzena duen ikasgai ez dago. Beharbada ez da beharrezkoa edo, bizi garen gizarteak aldaketei egokitzeko arazoak ditu. Nire ezjakintasuna sendatu nahian, hainbat adituk gaiaren gainean hausnartu dutena eta egin dituzten ikerketa enpirikoak aurkeztuak izango dira, hau guztia behaketan lagungarri izangodelarik. Denise Pirowicz (2010) eta Doni Tamblyn (2007) informazio iturri gisa oinarri hartuak izan dira.

2.4.6.1 Gogoetak

Autore batzuek gaiaren inguruan gogoeta egiten dute inolako ikasketa enpirikoan oinarritu gabe. Hauen artean Dickmeyer (1993) dago. Honek geletan umorearen erabileraz hausnartzen du. Berarentzako ondorio positiboa dakar irakasle-ikasleen artean komunikazioa ahalbidetzen duelako.

Hashemek (1994) bere perspektiba zabaltzen du eta jolasa ere kontuan hartzen du. Umoreak eta jolasak gelan suertatzen diren akatsen erlatibizazioan laguntzen dutelarik.

Puche Navarrok (2000) umorea ulermena errazteko testuinguru ona izan daitekeela adierazten du.

Autore hauek bezala, umorea geletan faltan nabaritzen dutenak eta jarrera hori indartu nahi dutenak badaude. Hala ere, umorea hezkuntzan zilegi ikusten ez duten autore batzuk ere badaude. Horien artean, Fernandez Solís (2002) dago. Horren arabera, umorea heldugabetasunaren seinale gisa ulertzen da. Honek -umoreak- denbora txarto kudeatzera darama eta formaltasun eraginkortasun falta adierazten du.

Doni Tamblyn umorista estatubatuarrek esaten duenez, umorea ondo garatu duten pertsonen haien burmuinak ere ondo garatu dituzte eta, gainera, pentsamendu kritikoa eta dibergentea erabiltzeko gai izango dira. Tamblinek ere adierazten du, hori guztia posible izateko, erratzea ezinbestekoa dela. Honek, Thomas J. Watsonen hitzez jabetzen da hori azaltzeko. Gizon honek

esan zuenez, arrakasta izan nahi izanez gero, porrot indizea bikoiztea beharrezkoa da.

Egia da gizon honek esaten duena, gizakiok beharrezkoa dugu erratzea; hori baita ikastera behartzen gaituena. Txarto ateratako konexio horiek -erroreak- dira umorearen oinarri beti ere bizitza era positiboan biziz gero.

2.4.6.2 Ikerketa enpirikoak

Umoreak, nahiz eta gaur egun horren erabilera nahiko onartua egon, duela urte batzuk ez zuen horrelako baikortasunik izan. Arlo akademikoan bereziki ez zegoen ondo ikusita horren erabilera egitea. Hala ere, duela urte batzuk hezkuntzan umorea erabiltzearen gaineko hainbat ikerketa egin ziren; Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta arlo unibertsitarioa aztergai izan dira ikerketa horietan. Kuriosoa da, baina, Haur Hezkuntzan ez dela horrelako ikerketa enpirikorik egin. Hala ere, orain ez da horretaz eztabaidatuko. Oraingo honetan, Pirowiczek bildu dituen ikerketa enpirikoak izendatuko dira eta, lagin gisa, hiru azalduko dira, esanguratsuenak direlarik.

Lehen Hezkuntzan umorea aztertu duten jakitunak hurrengoak dira: Raeshide (1993), Raisenberg(1994) eta Hobday-Kusch eta McVitte(2002). Hauen artean Raisenbergekin egin zuen ikerketa azaldua izango da, hiru ikerketen, artean umorea eskolan sortzen diren egoerak gainditzeko mekanismo gisa erabiltzen delako.

Bigarren hezkuntzan Steele (1998) eta Gurtler (2002) izan dira umorea behatu dutenak. Hauetaz Steele-en ikerketa izango da aurkeztua, honek gelan umorearen erabilerak izan ahal dituen eragin positiboek eta negatiboek hitz egiten baitu.

Arlo unibertsitarioan asko izan dira umorearen gaineko ikerketak egin dituztenak; Bryant et al (1981), Ziv (1988), Frymier eta Wanzer (1998), Whisonant (1998), Morrissey (2002) eta Torok et al (2002) dira Pirowiczek bere tesian biltzen dituenak. Arlo honetatik Frymier eta Wanzer izango dira aztergai, hauek unibertsitateko irakasleek umoreaz eta ez hitzezko komunikazioaz egiten duten erabilera aztertzen dute.

Arestian aipatua izan denez, Lehen Hezkuntzako lagina Raisenberg izango da. Honek 5. eta 6. mailako irakasleek eta ikasleek egiten zuten umorearen erabilera aztertu zuen Estatu Batuetan. Berak egiaztatu nahi zuena zera zen: ikasleek eta irakasleek umorea eskolako egunerokotasuneko egoerak gainditzeko erabiltzen zuten. Horretarako, Martin eta Lefcoruten (1983) eskalaren bertsio bat erabiltzen du. Hori gauzatzeko, galdetegi bat erabili zen aztergai bakoitzarekin, eskola egoeretan sortzen den estresa behatzea helburua zelarik. Ikerketa honetan 9-11 urte arteko 98 ikaslek eta 23 irakaslek parte hartu zuten. Ikerketa honen emaitzek adierazten dute geletan umorea erabiltzen denean, ikasleen eta irakasleen estresa eta tentsioa jaisten dela. Horren ondorioz, umorea taldeak gidatzeko zilegi da.

Steele (1998) Bigarren Hezkuntzako lagin gisa hautatua izan da. Honek umorea gelan lantzearen efektu positiboak eta negatiboak behatu zituen. Horretarako, DBH-ko bigarren mailako 65 ikasleri galdetegi bat egin zien. Horretan, umorearen erabilerarekin ados zeuden ala ez adierazi behar zuten. Ikerketa honen ondorioa aho batekoa izan zen; ikasleen aburuz umorea tentsioa murrizteko, gelako giroa hobetzeko eta gelan gehiago parte hartzeko lanabes baliogarria baita.

Haien ikerketak goi mailako ikasketetan zentratzen dituzten artean, Frymier eta Wanzer (1998) daude. Arlo honetatik Frymier eta Wanzer izango dira aztergai, hauek unibertsitateko irakasleek umoreaz eta ez hitzeko komunikazioaz egiten duten erabilera aztertzen dutelarik. Horretarako, Komunikazioa ikasten zuten 324 ikasleri inkesta bat egin zieten non idatzita zeuden galderei erantzuteko aurreko klasean izan zuten irakaslea kontuan izan behar zuten. Ikerketa honen ondorioa hurrengoa da: ikasleek hobeto ikasten zuten irakasleek haien klaseakumorez ematen zituztenean. Gainera, irakasleen hurbiltasuna ikasleengan positiboa izan zen haien arteko harremana sendotzeko.

Hiru ikerketa hauek lagin gisa hartuta, esan behar da umoreak eragin positiboa duela adin tarte horretako ikasleengan. Irakasleak umorez jokatu gero, gelako giroa hobetzen da, ikasle-irakasleen arteko harremana hobetzen

da, estresa eta tentsioak murrizten dira, ikasleak eta irakasleak gusturago daude lanean eta ikasleen emaitza akademikoak orokorrean hobetzen dira.

Informazio hau guztia jaso ostean, ondorioztatu daiteke umorearen erabilpena egiten duten irakasle horiek profesional hobeak izateko egiten dutela, hau da, gusturago egoteko haien ikasleekin, hauekin konfiantzazko giroa sortzeko, ikasleen ikasketa esanguratsua bermatzeko eta, azken finean, haien ikasleen inspiraziorako giltza izateko.

William Arthur Wardek (Tamblyn 2007 : 19) esan zuenez:

"El profesor mediocre dice. El buen profesor explica. El profesor superior demuestra. El gran profesor inspira."

2.4.7. Barrearen jatorria

Barrearen jatorriaren azalpenetan mendebaldeko hainbat filosofok haien ikuspuntua eman dute. Haien artean Hobbes, Goethe eta Berger daude. Horiekin batera, Anna-María Fernández-Poncela ere badago, Xoxomiko unibertsitateko irakaslea. Hauen ekarpenak aipatuakizango dira, gizakiok bakarrik egin ahal dugun ekintza horren jatorria adierazteko.

Hobbes filosofoaren ustez barreak gure nagusitasunaren bat-bateko bururatzean du oinarri (itzulpen propioa). Goethek, bestalde hurrengoko ideia defendatzen zuen:

"Lo risible proviene de un contraste moral, que de manera inofensiva es puesto en relación con nuestros sentidos".

Berger (1998) San Frantziskoko unibertsitateko irakasleak, hurrengo baieztapena egin zuen barrearen jatorriaz:

"Barrea ekintza edo jarrera bat da; honek komikoa edo barregarria den zerbaitetan du jatorri". (Itzulpen propioa)

Filosofo eta bestelako adituen azalpen literarioak alde batera utzita, esan behar da barrearen jatorriak baduela azalpen zientifikoa. Hori Anna-María

Fernández-Poncela (2012), Xochimilco-ko Unibertsitate Autonomia Matropolitanaren irakasleak, barrea noiz eta nola sortzen da azaltzen du.

"La risa surge cuando cierta magnitud de energía psíquica, dedicada anteriormente al revestimiento de determinados caminos psíquicos, llega a hacerse inutilizable y puede, por tanto, experimentar una libre descarga (...) la energía de revestimiento, dedicada a la retención, ha devenido a causa del establecimiento de la representación prohibida, logrando por medio de la percepción auditiva, repentinamente superflua, quedando removida y dispuesta a descargarse en la risa."

2.4.8 Barrearen definizioa

Sokrates (470-399 k.a) Atenaseko filosofoak, umoreaz eta barreaz hitz egiteko denbora izan zuen bere bizitzan zehar. Platonen maisua, barrea plazera mistoa zela esan zuen. Hala ere, berarentzat barre egitea ekintza polita zen.

Platonek (427-347 k.a) Filebo(1992/2002) elkarrizketan, umoreaz eta barreaz hitz egiten du. Aristotelesen maisua izan zenak, Sokratesen bidea jarraitu zuen; hazka eginez azkuraz libratzearen esperientzia barregarria den horren hautematearekin konparatzen du. Lehenengo kasuan, sentsazio mistoa dago gorputzean; sufrimendua eta egonezina sentitzen da pairatzen ari den azkuraz eta, aldi berean, plazera hazka egiten denean. Gauza bera gertatzen da komikotasunarekin, honek sentimendu mistoa eragiten baitu gizabanakoen ariman non, plazerak eta minak bat egiten duten.

Kant, ilustrazioko filosofoak, hurrengo esan zuen barreaz:

"La risa es una emoción nacida de la súbita reducción a nada de una inmensa expectativa".

Filosofo honek adierazitakoa, arestian aipatu den Carol Burnett Scarlet O'Hara imitatu zuen adibide horrekin bat egiten du. Izan ere, zerbaitetan dugun espektatiba hori hausten denean sortzen da barrea.

Jarraitzeko, Henri Bergson (1939), XIX. mendeko filosofoak bestalde, hurrengo esan zuen barreaz:

"Gizakia barrea eragiten eta barre egiten duen animalia da".

Bergson-ek egin zuen baieztapen hau Marisa Dominguez adituak berretsi zuen (2003). Honen aburuz, barrea bakarrik gizakien sentimendua delako. Dominguezek barrea gizakiok gizarteaz defendatzeko dugun babes dela ere esaten du.

Kontzeptu honen definizio zientifikoago bat ematearren, esan behar da barrea organismoak sortutako erantzun biologikoa dela; hainbat estimuluren aurreko erantzuna delarik.

Barrea beraz, gizakiok bakarrik dugun erantzun biologikoa da. Hau hainbat estimuluren aurreko erantzuna delarik.

2.4.9 Barrearen onurak arlo ezberdinetan

Barrea, gizabanako guztien bizitzan egon arren, helduen artean ez da maiztasunez azaleratzen. Urteak pasatzen diren heinean barre egiteko gaitasuna galtzen da. Honen zergatia jasotzen dugun hezkuntzan eta gizarteak inposatzen dituen baldintzapen sozialetan -neurritz jokatzeko ohitura galtzearen beldurra, besteak gu epaitzearen beldurra, lotsa eta abar- egon daiteke.

Anna Maria Fernandez Poncela (2012) autoreak, Villa aipatzen du bere idazkian. Azken hau ikerketa zientifiko batzuetan oinarritzen da esaten duenean sei urte edo gutxiago dituzten haurrek, egunero 300 alditan barre egiten dutela gutxi gora behera eta helduek bestalde egunean 14-100 alditan. Nabaria da bi kopuruen arteko ezberdintasuna handia dela. Arestian aipatu dudanez, egoera holakoa izatearen arrazoi nagusia barre egitearen gaitasuna urteekin galtzen dela da.

Hori horrela izatea, nahiko kaltegarria da gizakiontzako, izan ere badaude ikerketa batzuk zeintzuetan umorea izatearen eta barre egitearen onurak adierazten diren.

Norman Cousins doktore Estatubatuarrak (1979) ikerketa bat argitaratu zuen zeinetan zeintzuk ziren barrearen eraginak berak pairatzen zuen gaixotasunaren sendatze prozesuan -bizkarrezurreko artritis- adierazten ziren. Ikerketa honen bidez ondorioztatu zuen hamar minutuz barre egin ostean, bi ordu egon ahal zela minik sentitu gabe. Ikerketa berritzaile horren ostean, gaiaren inguruan egin ziren ikerketa zientifikoek norabide hori hartu zuten. Horien artean Stanford unibertsitateko Fry doktorea, Loma Linda unibertsitateko Berk doktorea eta William and Mary ikastetxeko Derks irakasleak, besteak beste.

Ikerketa hauek eta beste jakitun batzuek gauzaturikoak, hurrengo ondorio komunera heltzen dira: umorea eta barre egitea onuragarria da gizabanakoentzat. Garcíak (2002) esaten duenez, barre egitea ona da gizakien bizitzarako. Barre egitean odolean dagoen kortisol maila jaisten da, immunologia igotzen da eta erritmo kardiakoa areagotzen da. Nerbio sistema parasinpatikoa lasaitzen da estresa eta tentsioa txikiagotuz. Digestioa hobeto egiten da. Arnas aparatua, birikiek zehazki, egoera normal batean bonbeatzen duten haize kantitatea hirukoizten da. Barre egitearekin herxura eta antsietatea baztertzen dira. Auto-estimua igotzen da, irudimena estimulatu, pertzepzioa argitzen da eta kezka eta beldurak txikiagotzen dira.

Doni Tamblyn umoristak (2005), arestian aipatutako beste jakitunek bezala, beste ekintzen artean umorea izan du aztergai bere bizitza profesionalean. Bere azkenengo liburuan adierazten duenez, barre egiteak hainbat abantaila dakar gizakientzat. Tamblyn-en arabera, barrea lagungarria da, beste ekintzen artean objektibotasuna lantzeko, pentsamendu negatiboa ekiditeko, arazoei aurre egiteko, lotsa gainditzeko, nor bere burua onartzeko, lotura afektiboak indartzeko, memoria hobetzeko eta oraina bizitzeko.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ere, barre egitearen ondorio positiboak azaleratu dira. Doni Tamblynek (2007), adierazten duenez, umorea ikaskuntza prozesuan garrantzitsua da pertsona oro ondo moldatzen delako, estresa, antsietatea edota pertsonen gaineko mehatxuak txikitzen dituelako eta umorea ikusizko oroimena komunikatzeko eta informazioa gogoratzeko

erabiltzen delako. Burmuinari atsedena ematen dio eta, ondorioz, zentzua sortzen laguntzen du.

Umorista estatubatuarrak esaten du umoreak, orokorrean sormena ahalbidetzen duela ere, umorea eta barrea hezkuntzan sartzeko, parte-hartzeak, adiskidetasuna eta kidesun sentimendua motibatzen dituelarik.

Barrea -ikasleentzat baita irakasleentzat ere- sari emozionala da hezkuntza prozesuan, gainera ongizate fisikoa, atentzioa eta disposizioa suspertu eta interesa piztea dakar. Horren ondorioz, komunikazio eraginkorra ahalbidetzen da.

Honen guztiaren jakinaren gainean egonez gero, adierazi ahal da gauzak aldatzen ari direla. Rousseuren garaian (1762), ezinezkoa zen pentsatzea umorea gizabanakoen hezkuntza sisteman txertatzea eta, gaur egun aldiz hori gutxika-gutxika lortzen ari da, nahiz eta hezkuntza curriculum ofizialean oraindik horretaz ez hitz egin.

3. HELBURUAK

Bizkaiko eta Arabako zenbait eskolatan proiektu honen ikerketa martxan jarriko zen. Horietan, proiektuaren helburu nagusiak eta bigarren mailakoak aztertuko zirelarik. Helburu nagusiak bi dira. Haur Hezkuntzako gela batean umorea lantzeko edota umorez irakasteko gakoak ezagutzea da lehenengoa. Bigarrena, Haur Hezkuntzan umorea nola sortzen den ulertzen hastea eta umorearen teoriekin lotzea da.

Proiektu honetan, bigarren mailako hiru helburu daude. Hauen lehenengoa, hezkuntzan zeharka ala zuzenean umorea erabiltzen den ala ez da. Bigarrena, irakasleek umoreaz eta barre egiteaz duten pertzepzioa. Hirugarrena eta azkena, hauek umorearen teoriak ezagutzen dituzten ala ez egiaztatzea eta, hala izanez gero, jakitea horietan oinarritzen diren ala ez eskolak emateko.

4. METODOA

4.1 Metodologia planteamendua

Proiektua martxan jartzeko, arestian esan denez, Bizkaiko eta Arabako hainbat herri eskolekin kontaktatuko zen. Horretarako, horietara deitu eta proposamena aurkeztuko zen, hurrengo urratsa eskoletan hori onartzea zelarik.

Proiektu honetan egin beharreko behaketa bi fasetan zatituta egongo da. Lehenengo fasean, eskola ezberdinetako Haur Hezkuntzako hogeitabat irakasleri galdetegi bat egingo zaie. Horretan, umoreaz duten pertzepzioaz, haintzat duen garrantziaz, ikaskuntza prozesuan garrantzitsua den eta abarreko galderei erantzungo dietelarik.

Bigarren fasea, saio batez eskola bakoitzeko gela batean behintzat sartzea ikusle eta behatzaile gisa izango zen, horrekin, irakaslearekin aldeztatik izandako elkarrizketa egiaztatuko zelarik. Gero, umorezko materiala "¡¡¡SOCORRO!!!" ipuina (3. eranskina) haurrei kontatzea izango zen ikertzailearen eginkizuna.

Honen guztiaren ondoren, ikerketaren emaitzak jasotzeari ekingo zitzaien. Galdetegiak behatzeko, galderaz galdera jasotako emaitzak aztertuko ziren datu zehatzak emanez. Jasotako erantzun guztien artean, erantzun orokor bat sortua izango zen. Gelan izandako esperientzia -behaketa eta "¡¡¡SOCORRO!!!" jardueraren garapena- ere aztertua izango zen, bereziki haurren jarrerak kontuan izanez.

4.2 Ikerketaren kokapena

Bi eskualde ezberdinetako eskoletan egingo da ikerketa. Hauek Durangaldea eta Meatzaldea dira, Zornotza eta Trapagaran herrietako eskolak aztergai izango direlarik.

Demografikoki urrun dauden herrietako eskolak hautatuak izan dira haien artean izan ahal diren ezberdintasunak umorearen trataeran, haurren izaeran, tradizioan eta metodologian hautematearren.

Behaketa herri eskoletan burutu da horietara herriko haurrak bertaratzen direlako eta, horren ondorioz, haien arteko harremana estua izateko aukera handia delako.

Eskola publikoko nahiz itunduko eta pribatuetako HHko irakasleak eta haurrak izan dira behatuak, haien lan egiteko moduan, arteko ezberdintasunak aurkitzeko era eraginkorra delarik.

4.2.1 Zornotzako eskola: Larrea ikastetxea

Zornotzako eskola publiko bat aukeratua izan da ikerketa egiteko, izan ere herriko eskola handienetakoa da. Honek, "Amaraberri" metodologia jarraitzen du. Eskola honetan, Haur Hezkuntzan, bi urteko geletan ez beste, lau lerro daude adin tarte bakoitzeko. Horrek, irakasle gehiagorekin hitz egiteko eta haur gehiago behatzeko aukera ematen du. Adierazi behar da, eskola honetako bi urteko gela bakoitzean 24 haur daudela eta, 3, 4 eta 5 urteko gela bakoitzean, 18 ume.

4.2.2 Trapagaraneko eskolak: Franciscanas de Montpellier ikastetxea, Petete haur eskola, Itxaropena ikastola eta La Escontrila ikastetxea.

4.2.2.1 Franciscanas de Montpellier

Eskola erlijioso itundua da hau. Ez da eskola handia, izan ere, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko adin tarte bakoitzeko, bi lerro daude. Gela bakoitzean, 18 ume inguru daude, gelaren arabera.

4.2.2.2 Petete haur eskola

Berezko metodologia erabiltzen duen herriko haurtzaindegia da. Hona 0-2 urte arteko haurrak joaten dira. Eskola txikia eta familiarra da. Hiru hezitzaile daude haurren behar fisikoak, afektiboak eta kognitiboak asetzeko. Gela bakoitzean, zazpi ume inguru daude.

4.2.2.3 Itxaropena ikastola

Herriko ikastola pribatua da. Hau, ikastola kooperatibaren parte delarik. Zentro honetan, "Urtxintxa" metodologia erabiltzen dute. Zentro honetan, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko zikloak daude. Haur Hezkuntzan, bi lerro daude urte tarte bakoitzeko, eta, bigarren zikloko gela bakoitzeko, 24 ikasle daude, beti ere gelaren arabera.

4.2.2.4 La Escontrilla

Trapagaraneko eskola publikoa da. Horretan, HH eta LHko zikloak daude. Eskola honetan ere, "Urtxintxa" metodologia jarraitzen dute. Esan behar da, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan bi lerro daudela adin tarte bakoitzeko. Gela bakoitzean, 22-23 haur daude.

4.3 Materialen behaketa

Ikerketa gauzatzeko, alde batetik irakasleekin behaketa egiteko galdetegi (4. eranskina) batzuk sortuak izan dira. Hurrekin ikerketa egiteko, bestetik, behaketa soila eta "¡¡¡SOCORRO!!!" ipuinaren aurkezpena erabiliko dira. Hurrengo paragrafoetan, hori guztia adierazia izango da.

4.3.1 Ikerketa irakasleekin: galdetegiak

Galdetegien bidezko metodologia hautatua izan da irakasleek duten umorearen pertzepzioa ea haien baikortasuna edo ezkortasuna behatzeko, informazio hori lortzeko metodorik zuzenena delarik.

Galdetegiak 14 galderaz osatuta daude. Horietan, irakasleei galdetzen zaie umoreaz duten pertzepzioaz, haien bizitzetan duen presentziaz eta horretaz egiten duten erabileraz, besteak beste.

Esan behar da, metodo honen bidez, ez dugula bakarrik ezagutzen zein nolako pertsona den, baizik eta zein nolako irakaslea den ere. Horretaz jabetzean, errazagoa da irakasle horren lan egiteko era ezagutzea eta hurrekin duen harremana susmatzea.

4.3.2 Ikerketa hurrekin: Behaketa eta "¡¡¡SOCORRO!!!" ipuina

Behaketa soila eta "¡¡¡SOCORRO!!!" ipuinaren aurkezpena izan dira, aldiz, umorea hurrengan behatzeko erabilitako metodoak. Metodo hauek, erabiliak izan dira aurkeztutako ordenan. Haurrak, haien tutorearen presentziara ohituta daude, ez ordea inoiz gelan egon ez den irakasleei. Horregatik, lehenik eta behin behaketa izan da erabili den metodologia, hurrek denbora izateko beste irakasle horren presentziara ohitzeko. Behin 45 minutuko saio bat behatu ostean, "¡¡¡SOCORRO!!!" ipuina irakasle berri horrek aurkeztuko die.

Ipuin irekigarri hau, material erakargarria da hainbat arrazoiengatik. Lehenik eta behin, kartoizko ipuin irekigarri eta maneiagarria delako. Ilustrazio koloretsuak ditu. Gainera, honetan agertzen diren pertsonaien aurpegi

espresioak oso markatuak daude eta, horrek, erakargarriagoa egiten du. Amaitzeko, esan behar da inkongruentzia umorearen teoriaren lerroa jarraitzen duela.

5. EMAITZAK

Aurrera eraman izan den behaketa, ez da guztiz izan hasiera batean espero zena. Hasteko, esan behar da galdetegia egin duten irakasle guztien geletan sartzea, beharrezkoa izan ez arren, ezinezkoa izan dela eta, horren ondorioz, emaitzak bakarrik eskola horretako lagin gisa hartu daitezke. Gainera, "¡¡¡SOCORRO!!!" ipuina aurkezteko aukera gutxi egon dira eta, horrek suposatu du material hori ezin dela kontuan hartu behaketaren aldagai gisa. Hala eta guztiz ere, gelako irakasleak proposaturiko bestelako ekintzak behatzeko aukera egon da, umorea beste era batean aztertzeko aukera izanez.

5.1 Galdetegiaren emaitzak

Atal honetan, arestian adierazitako eskoletako 20 irakasleri egin zaien galdetegia (5. Eranskina) aurkeztua izango da. Galdera guztiak behatuak izango dira, horretarako, jasotako erantzun guztien arteko erantzun bateratu bat sortuko da ñabardura ezberdinez osatuta, hau da, erantzun bakoitzeko emaitza bat egongo da. Horrekin batera, adierazia izango ere da zenbatek erantzun orokorraren jarrera jarraitu duten eta zenbatek ez eta, eranskinetan, galdera bakoitzaren emaitzen araberrako grafiko bat egongo da(6. Eranskina).

1. Galdera: Umorea zer da zuretzat? Zer ematen dizu?

Zentroetako 20 irakasle hauek adierazi dute pozik, osasuntsu, lasai eta alai bizitzeko gizakiok gurea egin dezakegun jarrera dela umorea. Honek, sentimendu atseginak, plazera, zorientasuna, barre egiteko gaitasuna lortzen eta bizitzan serioegi ez izaten laguntzen duelarik.

2. Galdera: Hiru dira gaur egun umorearen teoria gisa hartzen direnak. Ezagutzen dituzu?

Irakasle batek izan ezik, bestelako 19ek ez zuten ezagutzen gaur egun umorearen teoria gisa hartzen direnak.

3. Galdera: Zer nolako presentzia du umoreak zure bizitzan?

Ikerketan parte hartu zuten hiru irakaslek umorea haien bizitzetan presentziarik ez zuela adierazi zuten. Beste bik, presentzia nahikoa eta, gainontzeko hamabostek izugarritzko presentzia handia zuela erantzun zuten. Joera orokorra, beraz, umorea irakasleen bizitzetan presentzia handia duela da.

4. Galdera: Zuretzat, barre egitea garrantzitsua da?

Galdetegia egin duten irakasle guztientzat, hau da, %100, barre egitea lasaitzeko, ingurukoekin batera ondo sentitzeko eta pozik bizitzeko beharrezkoa da. Beraz, joera orokorra da barrea irakasleentzako ezinbestekoa dela.

5. Galdera: Umorea zure gaitasuna da ala beharren arabera erabiltzen duzun estrategia?

13 irakaslek, umorea haien berezko gaitasuna dela adierazi dute. Bestelako zazpiek aldiz, ez dela haien berezko gaitasuna adierazi dute. Hala ere, guztiek geletan giro ona eta atsegina egoteko estrategia gisa ere erabiltzen dute. Beraz, joera orokorra da estrategia gisa erabiltzea, berezko gaitasuna izan edo izan ez arren.

6. Galdera: Umorea zure lanean erabiltzen duzu?

Esan behar da, irakasle batek izan ezik beste 19ek umorea haien lanean erabiltzen dutela adierazi dutela. Umorea, bai lankideekin, bai hurrekin erabiltzeak, giro atsegina sortzea ahalbidetzen baitu. Joera orokorra da beraz, haien lanean umorea erabiltzen dutela.

7. Galdera: Gelan, umorezko egoerak eragiten dituzu? Zertarako?

Galdera hori erantzuteko, irakasle guztiek baietz adierazi dute. Batzuek, edonolako gatazka dagoenean haurren atentzioa horretatik desbideratzeko, hots, txipa aldatzeko. Beste batzuek, ordea, afektibitatea lantzeko eragiten

dituzte umorezko egoerak gelan. Beraz, joera da HHko geletan umorezko egoerak eragiten direla helburu ezberdinekin.

8. Galdera: Hurrek, nola erantzuten diete horrelako egoerei?

Galdetegia egin duten 16 irakaslek adierazi dute hurrek, gehienetan oso ondo erantzuten dutela egoera hauen aurrean. Bestelako laurek, Hala ere, egoera horiek txanponaren beste aldea ikusgai uzten dutela adierazi dute; haurrak batzuetan urduritzen dira eta irakasleak adi egon behar dira gelako giroa parrandakoa ez bihurtzeko. Beraz, joera da haurrak ondo erantzutea baina, batzuetan urduritasunez egitea.

9. Galdera: Nola egiten dute lan gelako giroa umore onekoa izanez gero?

Galdera honi erantzuteko, irakasleak aurreko galderaren erantzunean oinarritu dira. Irakasle batzuek haien gelako hurrek orokorrean oso ondo erantzuten dutela eta ondo lan egiten dutela gelan umore oneko giroa egonez gero erantzun dute. Haien aburuz horrek haien ikaskuntza esanguratsua izatea bermatzen baitu. Hala ere, beste batzuk ez dira hain baikorrak eta gelan neurrigabekeriako giroa sortzen dela eta haurrak ondorioz, aztoratzen direla adierazi dute.

Beraz, aurreko galderan bezala, joera da haurrak ondo lan egitea, haien ikaskuntza esanguratsua izanez eta harremanak sendotuz.

10. Galdera: Material didaktikoa erabiltzen duzu haurren barreak bilatzeko?

Ikerketa egin den eskola ezberdin guztien barnean jasotako erantzunak anitzak izan dira. hiru irakaslek material didaktikoa erabiltzen dute. Beste hiru, haurren jostailuez baliatzen dira eta bestelako 12ak egunerokotasuneko egoerez baliatzen dira haurren barreak bilatzeko. Beraz, joera da material didaktikoa ez erabiltzea, nahiz eta gero eta gehiago erabili.

11. Galdera: Zure ustez, umorea ona da haurren garapen onerako? Eta haien auto-kontzeptu eta auto-estimuaeren eraketa onerako?

Galdetegia egindako 20 irakasleek baietzerantzun dute.

12. Galdera: Hurrek zertaz egiten dute barre?

Hamabigarren galdera honi erantzuteko, elkarrizketaturiko irakasle guztiek adierazi dute hurrek edozein egoeraz barre egiten dutela. Umore eskatologikoarekin lotura duen oro, keinu bereziak eta ikusgarriak, besteen kalteak eta jausiak dira gehienbat grazia egiten dietenak. Hala ere, adinaren arabera gauza batzuek beste batzuek baino gustukoak dituzte. Eranskinetako grafikoan ikusten denez beraz, umore eskatologikoa haur txikiak direnean ez dute oso gustukoa, ulertzen ez baitute. Besteen kalteez 2-4 urte tartean atsegin dute, baina geletan lantzen denez, hurrengo urratsean joera hori jaisten da. Keinua bereziak eta ahots aldaketak dira beraz Haur Hezkuntzako maila guztietan mantentzen direnak.

13: Galdera: Bakarrik egiten dute barre ala kideekin konpartitzen duten esperientzia da?

Galdera honi erantzuteko, 19 irakaslek hurrek bakarrik barre egiten dutela eta kideekin ere konpartitzen duten esperientzia dela adierazi dute. Gainontzekoak, haurrak oraindik txikiak direla kideekin esperientzia hori konpartitzeko eta, beraz, bakarrik egiten zutela barre adierazi zuen. Beraz, joera da hurrek bietara egiten dituztela da.

14: Galdera: Kideez barre egiten dute barre edo haiekin?

Galdetegiaren azken galderari erantzuteko, irakasle guztiek adierazi dute hurrek bietara egiten dutela, hau da, batzuetan kideez barre egiten dutela, baina beste batzuetan kideekin. Hala ere, kideez barre egitea ez dela haietatik ateratzen den jarrera diote, gizartetik kopiatzen dutena baizik. Hori irakasleek hurrekin gelan lantzen dute, haientzat eta haien ingurukoentzat txarra den jarrera hori zuzenduz. Hori guztia behaketan parte hartu duten zentro guztietan egiten da. Beraz, joera da hurrek bietara egitea, bi jarrerak ikaskuntza sozialak baitira.

5.2 "¡¡¡SOCORRO!!!"

Jarduera hau Trapagaraneko Franciscanas de Montpellier ikastetxean gauzatu zen, lau urteko haurrak ikusle zirelarik. Ipuina kontatzeko momentuan, haurrekin asanbladan eseri nintzen, haiek ondo ikustearren. Ipuinaren egoera ezberdinak adierazteko eta pertsonaien ahotsak ezberdintzeko ahots aldaketez baliatu nintzen. Hauen erantzuna oso positiboa izan zen; adi-adi entzuten egon ziren, gainera barre batzuk egin zituzten. Ipuina kontatu ostean, haiekin hitz egiten egon nintzen eta, hauek zein izan zen haiei grazia gehien egin ziena adierazi zidaten. Ahots aldaketak eta ipuinaren ezusteko amaiera izan ziren jarrera eta momentu arrakastatsuenak. Jarduera honek 25 minutu iraun zuen guztira.

5.3 Eskolek proposaturiko jarduerak

Adierazia izan denez, ez zen egon aukerarik ikerketarako zehazki prestaturiko jarduera eskola guztietan aurkezteko, hala ere beste batzuetan parte hartzeko aukera izan nuen. Hurrengo paragrafoetan horiek izango dira adieraziak.

5.3.1 Egunkari paperarekin jolasten

Trapagaraneko Petete haur eskolan, bi urteko haurrak behatzeko eta, aldi berean, haiekin jolasteko aukera izan dut. Horretan, haien tutoreak eta biok gela bat egunkari paperarekin estali genuen. Hori egin eta gero, beste irakasle batekin zeuden haurrak prestaturiko gelara eraman genituen. Haurrak, gela egunkari paperarekin estalita ikusi bezain pronto, gelatik korrika eta barrezka hasi ziren, pozaren pozez. Paperarekin esperimentatzeko aukera hori motrizitate fina, irudimena eta kideekin eta irakasleekin konpartitzeko aprobetxatu zuten. Haien irakaslea haurrekin jolasten egon zen barreka eta bromak egiten. Jarduera 35-40 minutukoa izan zen.

5.3.2 Zetazko zizareak behatzen

Itxaropena ikastolako lau urteko gela batean zetazko zizareak behatzen egon ziren haurrek, gero egin behar zuten marrazkirako ideiak hartzen. Berez, jarduera horren bitartez ez da umorea lantzen, hala ere, haurrak barreka hasi ziren zizareak ikusi eta ukitu ostean. Esan behar da, irakaslearen jarrera positiboa izan zela momentu orotan eta, horren ondorioz, haurren jarrera lasaia eta baikorra ere izan zela. Jarduera hau 20 minutukoa izan zen.

5.3.3 Birziklapenaren ipuina

Itxaropena ikastolako bost urteko gela batean, behaketarako prestaturiko ipuina kontatu ez arren, irakasleak prestaturiko beste ipuin bat ikusteko eta behatzeko aukera izan dut. Haurrentzat ipuin ezaguna zen, behin baino gehiagotan kontatua izan baitzen. Irakaslea, ipuina kontatzen zuen heinean, pertsonaien izenak aldatzen zihoan eta, pertsonaia bakoitzari hizkera ezberdina egiten zien. Hau guztia egitearen arrazoia, ipuina kontatu ostean adierazi zidan, hurrekin behar beharrekoa da horrelako estrategiak erabiltzea, ez bakarrik haurrak adi egoteko, baizik eta haiek eroso eta kontent sentitzeko.

5.3.4 Errutinak

La Escontrila ikastetxean, gela batean sartzeko aukera izan nuen. Goizeko jarduerak eta errutinak ikusi nituen. Esan behar da eskola horretan umorea zuzen unitate didaktikoen bidez landu ez arren, irakasleak txantxak egiten dituela eta hurrek horiek jarraitzen dituztela. Hurrekiko harremana estua zen; irakasleak maitasunezko hizkuntza erabiltzen zuen, haurrak laztantzen zituen eta, beharrezkoa izan ez arren, ez zuen inoiz ahotsa behar baino gehiago igotzen. Irakaslea oso dinamikoa zen eta, horren ondorioz, gelako giroa ere bai.

5.3.5 Errutinak eta urtebetetzea

Zornotzako eskolan sartu nintzen gelako irakaslea nahiko umoretsua zen. Haurren atentzioa deitzeko keinuak, ahots aldaketak egiten zituen eta, noizean behin txantxez baliatzen zen gelako giroa positiboa izan zedin. Egun horretan makinistak errutinak egin zituen. Errutinak egin eta gero, txoko aldaketa egin zuten eta, neska baten urtebetetzea izan zenez, antolatu ziren batzuek marrazkia egiteko beste batzuek, urteak betetzen zituen neskaren koroa apaintzeko eta, gainontzekoak etxe txokoan jolasteko. Hori guztia egin ostean, hamaiketako hartu zuten. Nahiz eta gelan nahiko istilu sortu, irakaslea lasai eta irribarretsu egon zen, hurrei lasaitasuna transmititu nahian.

6. ONDORIOAK

6.1 Galdetegiaren ondorioak

Hasteko, esan behar da galdetegia egin duten irakasleak adin ezberdinekoak izan arren -35-55 urte tartekoak ziren-, umorearen gainean duten ikuspuntua nahiko hurbila dela; guztien arabera umorea beharrezkoa da gelan giro atsegina egoteko, haurren garapen onerako eta hauen ikaskuntza prozesua esanguratsuagoa izateko. Irakasleek osotasunean adierazi dute, haurrei grazia egiten diela umore eskatologikoarekin zuzen lotuta dagoen orok, besteen akatsek, momentuko egoerek, keinu ikusgarriek eta gehiegikeriazko egoerek. Hauen aburuz ere, hurrek ez dute maltzurkeriarik eta, kideez barre egitekotan, nonbait horrelako jarrera soziala ikusi dutelako egiten dute, hots, gizartearen kopia da.

Esan behar da, irakasleei galdetegiak egin bitartean izandako elkarrizketak kontuan izanda, umorez lan egiteko gako finkorik ez dagoela adierazi zutela irakasleek. Umorez lan egiteko alde batetik, beharrezkoa da norbanakoaren izaerarekin batera joatea umore hori eta, bestetik, hori gelan beharrezkoa denean agerian uztea; haurren ikaskuntzarako onuragarria izango denean, afektibitatea landu nahi denean, ipuinak istorio fantastiko bihurtu nahi direnean eta haien atenzioa deitu nahi denean.

Jarraitzeko, adieraztekoa da Haur Hezkuntzako haurren umore motak inkongruentziaren teoriarekin eta nagusitasuneko teoriarekin lotura izan dezakeela. Inkongruentziarekin lotzen da, irakasleek ipuinak -adibidez- kontatzen dituztenean. Batzuetan, ipuinaren jarduera hori dibertigarriagoa eta dinamikoagoa egitearren, irakasleek hurrek ezagutzen dituzten ipuinen pertsonaiei izena aldatzen die, hurrek espero duten hori aldatzen dute ezusteko datu batez ordezkatzeko. Hori da haurrei grazia egiten diena, irakasleak egin duen aldaketa horrek.

Umorearen teoriak azaldu direnean, hainbat jakitunek inkongruentziaz adierazi duten definizioak daude. Horien artea Pirowicz (2010) autorearena. Horren aburuz, pentsamendu bat sortzen denean baina horrekin bat etortzen ez

den datu bat agertzen denean sortzen da inkongruentzia. Adibidez, proiekturako prestaturiko "¡¡¡ SOCORRO!!!" ipuina inkongruentzian oinarritzen da. Ipuinaren hasieran sagu bat agertzen da, "¡¡¡SOCORRO!!!" esaten duelarik. Hainbat animalia horren segidan agertzen dira. Ipuinaren azkenaurreko animalia elefante bat da eta, hori lehenengo animaliaz -saguaz- alde egiten du. Animalia handia eta txikiaren arteko kontraste hori da inkongruentzia, haurrek hori ez dutelako espero.

Nagusitasunaren teoriarekin lotzen da haurren umorea, geletan batzuetan ikusi ahal denez, haien kideak edota irakaslea erratzen direnean barre egiten dutelako, hots, egoera horien aurrean besteak baino hobeak sentitzen dira eta horrek, barre eragiten die.

Galdetegiak behatu ostean, orokorrean umorea egunero lantzen den jardura delaere ondorioztatu daiteke. Hori egiteko, hala ere, ez daude alde zeharkatik prestaturiko jarduerak. Umorea, gelako ohiko jarduerekin batera zeharka lantzen da. Irakaslea da horren aitzindaria eta ikasleak harrera hori ikasten eta jarraitzen dutenak.

Jarraitzeko, esan behar da, irakasleekin erabilitako metodologia aztertu ostean, galdetegiak behatu ostean, ondorioztatu daitekeela hauentzat umorea eta barre egitea bizitzan ezinbestekoa den gauza dela; hori gelan pozik, lasai eta ondo lan egiteko ezinbestekoa delarik.

Galdetegiarekin egiaztatu nahi zen azkenengo helburua zen ea irakasleek umorearen teoriak ezagutzen dituzten eta, horrela izanez gero, horietan oinarritzen diren. Esan behar da, irakasle bat izan ezik beste guztiek ez zituztela teoria horiek guztiak ezagutzen eta, horren ondorioz, ez zirela horietan oinarritzen haurrekin lan egiteko orduan. Teoriak ezagutzen dituen hori ez zen horietan oinarritzen.

Galdetegiarekin lortu diren ondorioekin amaitzeko, esan behar da irakasleek umorea baliabide zilegi bezala balioesten dutela. Haren onurak ezagutzen dituzte eta, horregatik geletan horren erabilera ona egiten saiatzen dira.

6.2 Eskoletan egindako behaketaren ondorioak

Ikerketa egin den eskola guztietako haurrak Haur Hezkuntzako ikasleak ziren. Hauek, 2-6 urte tartekoak izan direlarik. Adin tarte horretako umeez barre egiten zuten bereziki umore eskatologikoarekin zerikusia zuten horretaz, irakasleek egiten zituzten errakuntzez eta egunerokotasuneko gauzez. Ikerketan parte hartu duten irakasleak oso ezberdinak dira haien artean. Gehienak, 35-55 adinekoak dira. Haien lan egiteko era ezberdina da eskoletan erabiltzen den metodologiaren arabera, baina oinarrian oso antzekoa. Irakasle dinamikoak, langileak eta umoretsuak dira orokorrean.

6.2.1 "¡¡¡SOCORRO!!!" ondorioak

Jarduera honen bidez, haurrek ezusteko egoerez barre egiten dutela egiaztatzeko aukera egon da. Haurrek, ipuinari bizia ematen zieten haien barrekin eta galderekin. Esan behar da adin honetako haurren umorea kontuan izanda, umore zuri generoarekin harremana dutela. Kasu honetan ere, egiaztatu da adin honetako haurren umorea, inkongruentziaren teoriarekin partekatzen dela. Ezustekoak gustuko dituzte eta horietaz barre egiten dute.

6.2.2 Egunkari paperarekin jolasten jardueraren ondorioak

Jarduera honetan parte hartu zuten haurrak oso txikiak ziren. Hala ere, aukera egon da egiaztatzeko adin horretako umeez hobeto pasatzen dutela horrelako ekintza batekin izugarritzko ingeniari-tza dakarren jostailu batekin baino. Haurrek haien artean barre egiten zuten. Haien barregura paper soilak piztu zuen, Ekintza honekin, egiaztatu da bi urteko haurrek umore zuria, sinplea eta esperimendazioa gustukoa dutela. Gainera, haien garapen kognitiboarekin hobe bat egiten duen umorearen teoria barealdikoa dela ere egiaztatu da.

6.2.3 Zetazko zizareak jardueraren ondorioak

Zetazko zizareen ekintza hori, ikastolako lau urteko gela bateko haurrekin egin zen. Esanenez, ekintza honekin bereziki ez da umorea lantzen Hala ere, ikusi zen haurrek zuten jakin-minak barregura pizten ziela. Beraz, inkongruentziako teoriarekin alderatu daitekeen jarduera da. Zetazko zizareak ez baitziren haurrek espero zuten bezalakoak. Loditxoak ziren eta ukimenera nahiko leunak.

6.2.4 Birziklapenaren ipuina

Gela horretako irakaslea hurrek ezagutzen zuten ipuin bat kontatu zien. Haurrak oso gustura egon ziren. barrez erantzuten zuten irakasleak egiten zituen ahots aldaketei. Eskatologiari egiten zioten erreferentziaz ere algaraka barre egiten zuten. Horren ondorioz, gela honetako haurren joera, umore eskatologikoaz barre egitea zen. Gela honen ondorioekin amaitzeko, esan behar da, haur hauek barealdi umorearen teoriatik gertu daudela.

6.2.5 Errutinak

Ikusi eta behatutakoaz ateratako ondorioak hurrengoak dira: nahiz eta momentu orotan ez gertatu, batzuetan hurrek irakaslearen eta haien kideen errakuntzez barre egiten zuten. Horren ondorioz, hauek nagusitasuneko umorearen teoriarekin lortu daitezke.

6.2.6 Errutinak eta urtebetetzea

Eskoletan izandako esperientzien ondorioekin amaitzeko, esan behar da Zornotzako hurrek gelakoen haien egunerokotasuneko ekintzez barre egiten zutela. Horregatik, esan dezakegu barealdiko teoriarekin lotu ahal direla, haien lasaitasunak gelan gustura egotea ahalbidetzen zuelako eta, ondorioz, edozertaz barre egiteko askatasuna zuten.

6.3 Azken ondorioak

Barre egiteko gaitasuna, bizitza umorez hartzeko jarrera eta horretaz gozatzeko ahalmena dutenak, gure egungo gizartean haurrak dira. Baina, zer dago ume txiki horien atzean? Beste pertsonen artean, haiekin astelehenetik ostiralera egoten diren profesionalak, Haur Hezkuntzako maisu maistrak. Esan behar da pertsona hauek lan handia egiten dutela haurrak umorez bizitzen ikas dezaten.

Behatu izan diren eskoletako Haur Hezkuntzako irakasleek haien lana maite dute eta, horregatik egunero saiatzen dira hobeak izaten. Horretarako, bestelako baliabide batzuen artean, **umorea** erabiltzen dute. Hauek eta gela bakoitzeko haurrak dira, egunero umorea sortzen dutenak. Irakasleek, umorea definitzen ez jakin arren, badakite nola jarri praktikan. Jakina edo jakin gabe, barealdiko teoriarekin harremana duten txistek eta, bereziki, inkongruentziarekin harreman zuzena duten egoerak gelan sortzen dituzte, guztion ongizatea bermatzearen. Beraz, lan honen ondorio orokorra hurrengoa

da: Haur Hezkuntzako irakasleak umorez lan egiten dute, batzuk haien izaera horrelakoa delako eta, beste batzuk hori haurrentzat eta haientzat onuragarri ikusten dutelako.

7. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Txostenaren atal honetan, gauzaturiko proiektua hobetzeko gakoak adieraziak izango dira. Horretarako, egiteko orduan izandako zailtasunak kontuan izango dira.

Hasteko, esan behar da lan honen eraketan izandako lehenengo arazoa lanaren justifikazioarekin izan zela. Informazio zehatzik ez zegoen umoreaz Haur Hezkuntzan eta, horren ondorioz, gaia testu inguratzeko, hezkuntzako beste zikloetan egindako ikerketak erabiliak izan ziren. Arlo hau hobetzeko egiten den proposamena hurrengoa da: nahiz eta arlo zehatz batetik informaziorik existitu ez, besteenak aprobetxatu eta, ikerketa praktikoa egiteko momentuan, espezialistekin kontaktatu eta haiekin gaiaz hitz egin da.

Hurrengo arazoa sortu zen egingo zen ikerketarekin. Arestian adierazi izan denez, proiektu faraooniko bat izan zen helburua, Asperger, Down sindromea eta Autismoa zuten haurrek umorea nola bizi eta esperimendatzen duten ikertzea. Ez zen helburu errealista ze, horrelako lana gauzatzeko GBLko lana egiteko baino denbora gehiago behar zen. Beraz, kasu honetan proposatzen den hobekuntza proposamena da hasieratik helburu errealistak ezartzea norbanakoak duen denbora eta mugikortasun aukerak kontuan izanik.

Ikerketa kontuan izanda, adierazi behar da hori hobetzeko, erabilitako metodologia beste era batean gauzatzeko aukerak ere badaudela. Haurrak behatzeko momentuan, haiek behatu eta ostean elkarrekintza sortu beharrean, zuzenean elkarrekintza bilatzea eraginkorragoa izango zelako ustean nago. Haurrak, hasiera batean mesfidati egon arren, gero, haiekin dagoen horrek haiek egiten duten ariketan parte hartzen duela ikusi ondoren, ondo onartuko zuten eta pertsona berri horiekiko elkarrekintza bilatuko zuten.

Amaitzeko, esan behar da ikerketa honi jarraipena emateko, interesgarria izango litzatekeela eskola batean horren gaineko proiektu bat aurrera

eramatea. Umorea oinarri, gelan lantzea hainbat jarduera oinarri izanda eta, horietaz aurrera egiten haurren beharren arabera.

8. BIBLIOGRAFIA

LIBURUAK

- BERGER, A (1998) *Ananatomy of humor*. New Jersey: Transaction publishers
- BERGER, P (1999) *Risa redentora: La dimension comica de de la experiencia humana*. Kairos
- BERGSON, H (1939) *La risa. Ensayo sobre el significado de lo cómico*. Buenos Aires: losada.
- COUSINS, N (1979) *Anatomy of an illness as perceived by the patient: Reflections on Healing and Regeneration*
- FERNÁNDEZ SOLÍS, J (2002) *Pedagogia del humor*. En A. Rodriguez Idigoras, Ed., El valor terapeutico del humor. Bilbao: Desclée De Brouwer.
- FREUD, S (1974) *El humor. Obras completas*. Madrid: Biblioteca Nueva
- HOBBS, T (1588-1679) *The materialist view of human nature*
- PIDDINGTON, R (1962) *Psicologia de la risa*. Buenos aires, leviatan
- PLATÓN (1992/2002) *Diálogos. Obra completa. Volumen VI: Filebo*. Gredos argitaletxea: Madrid.
- PLATÓN (2003). *Diálogos. Obra completa en 9 volúmenes. Volumen IV: República*. Madrid: Gredos argitaletxea.
- RAISENBERG, C. (1994) *Reducing stress and tension in the classroom through the use of humor*.
- ROUSSEAU, J.J (2009) *Émile*. The floating press.
- ROSAS, R (2001) *La mente suspendida: Principios semióticos del desarrollo del juego y el sentido del humor*. Santiago de Chile: Psykhe
- TAMBLYN, D (2007) *Reir y aprender: 95 tecnicas para emplear el humor en la formación*. Bilbao: Desclée de Brouwer

ARTIKULUAK

- DOMINGUEZ, M (2003) MUFACE aldizkaria, urria.
- FERNÁNDEZ-PONCELA, A.M (2012) *Riéndose aprende la gente. Humor, salud y enseñanza aprendizaje*, Revista Iberoamericana de Educación Superior

WEB ORRIALDEAK

HERNANDEZ MUÑOZ, S (2012) *El humor y su concepto. Humor, humorismo y comicidad* 2014ko maiatzaren 14, <http://monografica.org>

MARTÍN CAMACHO. J (2003) *La risa y el humor en la antigüedad* 2014ko maiatzaren 14a, <http://fundacionforo.com>

TESIAK

HEMPELMANN, C(1998) *Lingistic approaches to humor: the general theory of verbal humor in performance*. Argitaratuko ez den tesia, Unibertitar Hannover.

PINTO LOBO, M.R (1992) *La influencia del humor en el proceso de la comunicación* Facultad de ciencias de la educación

PIROWICZ, D (2010) *El humor en los procesos de enseñanza – aprendizaje*. Maestría en psicología cognitiva y aprendizaje

STEELE, K.(1998) *The positive and negative effects of the use of humor in the classroom seting*. Tesis de master of art degree. Salem- Teikoko unibertsitatea

PONENTZIAK

DICKMEYER, S (1993) *Humor as an instructional practice: a longitudinal content analysis of humor use in the classroom*. Ponentzia

FRYMEYER, A,; WANZER, M (1998) *Make´em laugh and they will learn: a closer look at the relationship between perceptions of instructors. Humor orientation and student learning*. Ponentzia

HASHEM, M(1994) *Play and humor in the college classroom: using play as a teaching technique in interpersonal communication classes*. Annual meeting of the central states communication association aurkeztutako ponentzia, Oklahoma City, OK

PUCHE NAVARRO, R (2000) *El humor como entrada a la teoria de la mente*. “IV curso Andino de transtornos de aprendizaje” ponentzia aurkeztuta. Bogotá.

I. ERANSKINAK

1. Eranskina: Umore arloen sailkapena

Maurice Charney: "Comedy high and low: an introduction to the experience of comedy"

1. Arloa: Etenaren area

1.1: Inkongruentziaren teoria

1.2: Anbibalentziaren teoria

1.3: Konfigurazioaren teoria

2. Arloa: Ustekabearen area

2.1: Sorpresaren teoria

3. Arloa: Autonomiaren area

4. Arloa: Nahitako arloa

5. Arloa: Arlo histrionikoa

6. Arloa: Area ironikoa


6.1: Nagusitasuneko teoria

2. Eranskina: Umorearen generoen adibide grafikoak

1. Umore zuria



2. Umore gordina



3. Umore eskatologikoa



4. Umore beltza



5. Umore lehorra "Deadpan"



6. Umore berdea



3. Eranskina: "¡¡¡SOCORRO!!!" ipuinaren portada eta datu orokorrak



Izenburua: "¡¡¡SOCORRO!!!"

Idazlea: **Michael Escoffier**

Ilustratzailea: Matthieu Maudet

Argitaletxea: Corimbo

4. Eranskina: galdetegia

GBL: UMOREA HAUR HEZKUNTZAN

DATU OROKORRAK

Urtea:

Zentroaren izena:

IRAKASLEAREN DATUAK

Izena:

Esperientzia:

Gela:

IRAKASLEARENTZAKO GALDETEGIA

1- Zer da umorea zuretzat? Zer ematen dizu?

2- Hiru umore mota daude, ezagutzen dituzu?

3- Zer nolako presentzia du umorea zure bizitzan?

4- Zuretzat, barre egitea garrantzitsua da?

5- Umorea zure gaitasuna da ala beharren arabera erabiltzen duzun estrategia?

6- Umorea erabiltzen duzu zure lanean?

7- Umorezko egoerak eragiten dituzu gelan?

8- Hurrek, nola erantzuten dute horrelako egoerei?

9- Nola egiten dute lan -hurrek- gelako giroa umore onekoa izanez gero?

10- Material didaktikoak erabiltzen dituzu hurren barreak bilatuz?

11- Zure ustez, umorea ona da hurren garapenerako?

12- Umorea, auto-kontzeptuaren eta auto-estimuaeren garapenean laguntzen die?

13- Zure ustez, umorea baliogarria da edonolako arazo fisiko edo mental duten hurrentzako?

14- Zertaz egiten dute barre hurrek?

15- Bakarrik egite dute barre ala kideekin konpartitzen den esperientzia da?

16- Kideez egiten dute barre edo haiekin?

5. Eranskina: Galdetegi bat erantzuna

IRAKASLEENTZAKO GALDETEGIA

1. Galdera: Umorea zer da zuretzat? Zer ematen dizu?

Alaitasuna, momentu onak pasatzea, osasuna.

2. Galdera: Hiru dira gaur egun umorearen teoria gisa hartzen direnak. Ezagutzen dituzu?

Ez.

3. Galdera: Zer nolako presentzia du umoreak zure bizitzan?

Handia, berarentzat garrantzitsua da.

4. Galdera: Zuretzat, barre egitea garrantzitsua da?

Bai.

5. Galdera: Umorea zure gaitasuna da ala beharren arabera erabiltzen duzun estrategia?

Bere izaeraren ezaugarri bat da, baina askotan estrategia gisa erabiltzen du.

6. Galdera: Umorea zure lanean erabiltzen duzu?

Bai, umeeekin zein lankideekin.

7. Galdera: Gelan, umorezko egoerak eragiten dituzu? Zertarako?

Bai, eurek pizteko, alaitzeko, afektibitatea lantzeko, haiengana hobeto heltzeko.

8. Galdera: Hurrek, nola erantzuten dute horrelako egoerei?

Barre egiten, batzuk beste bromak egiten, beste batzuk lotsatzen dira.

9. Galdera: Nola egiten dute lan gelako giroa umore onekoa izanez gero?

Batzuetan aztoratzen dira, baina normalean gustura daude. Lan aldetik, errendimendua handiagoa da, parte-hartzea ere bai.

10. Galdera: Material didaktikoa erabiltzen duzu haurren barreak bilatzeko?

Ez, umeen egoerez baliatzen da.

11. Galdera: Zure ustez, umorea ona da haurren garapen onerako? Eta haien auto-kontzeptu eta auto-estimua eraketa onerako?

bai, oso ona da, horretan guztietan laguntzen die.

12. Galdera: Haurrek zertaz egiten dute barre?

Edozein egoerez, irakasleen ahotsez...

13. Galdera: Bakarrik egiten dute barre ala kideekin konpartitzen duten esperientzia da?

Kideekin nahiz bakarrik egiten dute barre. Egia da bat hasten denean barre egiten, beste asko kutsatzen direla.

14. Galdera: Kideez barre egiten dute barre edo haiekin?

Bietara egiten dute, nahiz eta kideez oso gutxitan egin. Jarrera hori gelan zuzentzen da.


6. Eranskina: Galdetegiaren galderen erantzunen emaitzak

1. Galdera: Zer da umorea?




Irakasle guztiek antzeko zerbait erantzun zuten.

2. Galdera: Umorearen teoriak ezagutzen dituzu?




Irakasle bat umorearen teoriak ezagutzen zituen, beste hemeretziak ez.

3. Galdera: Umorearen presentzia




Hiru irakasleen bizitzan umorea ez du tokirik, bi irakasleen bizitzan nahiko tokia du eta, bestelako 15en bizitzetan presentzia handia du.

4. Galdera: Barrearen garrantzia




20 tik 20 irakasle adierazi zuten barrea oso garrantzitsua dela.

5. Galdera: Umorea, gaitasuna edo baliabidea?




13 irakasleen gaitasuna eta 7 irakaslek baliabide erabiltzen dute.

6. galdera: Umorea lanean?




Irakasle bat izan ezik, bestelako 19ek lanean erabiltzen dute.

7. galdera: Gelan, umorezko egoerak eragiten dira?




Irakasle guztiek egoera horiek eragiten dituzte.

8. galdera: Haurrek, nola erantzuten dute horiei?




16 irakasle adierazi haurrek ondo erantzuten dutela, bestelako laurek haurrak aztoratzen direla adierazi.

9. galdera: Umorezko giroarekin, nola egiten dute lan haurrek?



16 irakasle adierazi haurrek ondo lan egiten dutela, bestelako laurek haurrak aztoratzen direla adierazi.

10. galdera: Material didaktikoa erabiltzen duzu haurren barreak bilatuz?




Material didaktikoa berez ez, hiruk ipuinak, beste hiruk haurren jostailuak eta, gainontzeko 12ek egunerokotasuneko egoerak.

11. galdera: Umorea ona da garapenerako?



Irakasle guztiek baietz esan dute.

12. galdera: Haurrek zertaz barre egiten dute?




Adin tarte ezberdinaren arabera, grazia egiten dien hori aldatuz doa.

13. galdera: bakarrik ala konpartituz?



Irakasle batek adierazi bakarrik barre egiten dutela, beste 19ak, konpartitzen duten esperientzia dela da.

14. galdera: kideez ala kideekin?



Haurrek, bietara egiten dute.